

hondo-hondotik

Iñaki Antiguada

(Ur-baliabideetan EHUko katedraduna)

Ur handitan ibiltzen jakin beharra

Amaitzear dagoen udak busti antza du han-hemen. Erteuropako hainbat erdi eta bazter urpean ikusi dugu, egunetan. Bangladesheko ohiko irudiak European. Euskal Herriko hainbat leku ere urak hartu ditu, orduetan. Zaharra berri. 1983ko abuztuko hura izan dute batzuek buruan, *egundoko euri-jasak!* orduko hartan klimaren aldaketa aipatua ez izan arren. Handik gutxira, 1989-1990 urteetan, *egundoko sikatea* izan genuen, orduan bai klima errudun, *aldaketa zekarren eta!* Eta orain hau. 1983ko Euzkadi monzonikotik 2002ko Euskal Herri monzonikora egin dugu bide, erdiko Euskadi tropikaletik pasata. Tira ba! Edukin politikoetan aurrera egin ei dugu baina gure ingurua ulertu eta kudeatzeko orduan oker segitzen dugu, batzuek besteek baino okerrago. *Kausak zelakoak ondorioak halakoak.*

Uda honetako ur kontuok, hainbat lehorte ere tartean, Johannesburgeko Lurraren Gailurra zirkuaren atarian gertatu dira, une aiposean gertatu ere, han-hemengo hainbeste buruzagiren irtenbiderik gabeko aurrerabide antzuen seinale gordin. Saihesbideak nagusi, asko dute jokoan eta. Urak kontzientzia asko astindu ditu, kontuak atera zenbat arima. Idatzi hitz ponpoxoen oso gainetik geratzen da egunez egun egina. Han eta hemen. Gaur lehengo bera egiten da, baina orain *jasangarria* izenlaguna ipinita.

Klima aldaketa

Modako berba bihurtu da hau, hizkeraren komodina, eta urak lurrean hondatuaren erruduna bilatzen dute han goian, giza ardurak hodei lardatsetan urtzen diren eremu zerutar horretan. Esan gabe doa aldaketa hori gertatzekoa dela edo beharbada egun gertatzen dagoela, baina ez dago hori baieztatzetik gertaera luze horren bidean sartuta egon arte. Datu bat, egunotako uholdeen harira ez dut inongo meteorologorik entzun klima aldaketa aipatzen; bai, ordea, besteak beste, hainbat estatuburu. Zer esanik ez, nahiko frogatzen badugu gaur egungo eredu industrialak pikutan jartzeko, bidean sartuta egoteko itxaron gabe ere. Baina, uholdean sobera edo lehortean falta, urak lurrean sortzen dituen arazoak kausak ulertzeko klima aldaketarena ardatz ipintzea bidezkoa ez delakoan nago.

Eta hori arrazoi birengatik. Batetik, gora seinalatzeak lekuan lekuko giza erresponsabilitateak urtzen ditu. Bai, litekeena da planetako bazterrean jaurtiki gas berotegikoek denboraz beste bazterreko euri egiteko era baldintzatzea, eta zer esanik ez, horretan izan badira errudunak, aski ezagunak. Baina urak lurrean hondatuaren kausa lurrean bertan bilatu behar da, beste inon baino lehenago. Eta nago ni, ez ote den jende asko txarto hezitua eta muturreko eguraldia dagoenean klima aldaketari seinala ere. Ba, muturreko eguraldiak betidanik izan dira, hemen eta han,

modu naturalean. Galdeiozu Noeri. Egunotan irakurri dugu orain mende eta erdi ez zutela hain gorako nibela hartzen Europako hainbat ibai handik. Beraz, ez da kontu berria! Euskal Herrian bertan ere badira 1983koak baino urgora handiagoak, eta 1989-90 baino sikate luzeagoak ere; hori bai, galerak urteekin gora doaz! Horretan dago, bada, kontua, lehorreko kausetan.

Lurralde Antolamendua

Horixe bigarren arrazoia. Hamaika aldarrikapenetan dago idatzita, eta buruzagiek sinatuta ere, honakoa: lurraren landaretza mantentzea funtsezkoa da uraren berezko erregulatzailerako, *pausaleku* hainbat baserri-tarren esanetan; ibai-arroa da ura eta lurra ikuspegi integral batetik kudeatzeko berezko eremua. Eta? Zer egin arroa bere osotasunean kudeatzeko ur-eskumenak, baso-eskumenak eta azpiegitura-eskumenak esku asko eta askotarikoetan direnean? Are txarrago, zer egin arro zati bat beste Lurralde Historiko batean denean? Are txarrago oraindik, Nafarroan? Aspaldian dago esana: uholdeei aurre egiteko baliotsuagoa da kilo bat ongari kilo bat zementu baino. Eta? Prezioa da gaur irizpide, balioaren gainean.

Egunotan gure kostaldeko hainbat herrian gertatuaren harira uholdean uholdekua entzun dugu berriro ere adminis-

traziotik: erreka tarte gehiago ubideratu behar da, urak errenditzeko. Nonbait, errekek ez daude ondo dauden tokian, traba egiten diotelako ur handiari, eta honek etxe-fabrikei, eskerrak *ubiderapen jasangarria* asmatua dela! Eta datuak ere hortxe: ez dakit zenbat mila tona urabar atera duten gora egindako erreketatik, tamaina guztietako harriak, enborrak, tresnak, plastikontziak, egurrak. Eta nago ni, hori dena klima aldaketaren ondorio ote? Hodeitik jausiak ote? Zelan hori guztia errekaraino heldu, era askotako Lurralde

Arloko Planak hortxe direnean, zelan hamaika erai-kin erreka bazterrean Uholdeak Aurreikusteko Plan Integrala denean. Zelan? Egin al dira inoiz benetakotako kontuak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak, epe motz eta luze-erakoak ere, uholdeei aurre egiteko neurri diferen-

teak alderatzeko? Neurri zementuzkoak eta sinatutako aldarrikapenetako neurri integralak? Egingo al dira aurrerantzean ala betiko puntura daroan bidelaburra hartuko da honetan ere? Zaharra berri.

Ez naiz profeta, beste batzuetarako uzten dut hori, baina 1983ko egoera meteorologiko hura bere hartan errepikatuko balitz gaurko honetan kalteak ez ziren haren tamainakoak, handiagoak baino, 20 urteko zementua eta guzti. Hori bai, hondamen «jasangarria» esango dute. Erreka bazterrei begira paratzea nahikoa da, zertan garen jakiteko. *Jasangarritasun halakoa!*

Inaki Irazabalbeitia

(Zientzi dibulгатzailea)

‘Beldur ziraden artian’

Kubako gerrari eginiko bertsoetan horrelako arrazoia bota zuen Txirritak foruen galeraz ari zelarik. Lehengoan, bertso horiek entzuten ari nintzenean, Madrilgo gorteek ea zeri izan zioten beldurra eta zergatik *guardatu izan ziguten errespetuba* galdetu nion neure buruari. Ez dakit zer zerbilkion buruan Latxeko bertsolariari halakoak jaulki zituen, baina ziur aski ez zuen euskaldunon indar militarra gogoan izango. Alta bada, garai honetara etorrita eta bertsoen letzari helduta, badakit jakin, zeri izan dioten beldurra Madrilgo gortetan atzen urteotan: Lizarrar-Garazin gauzatu zen elkarlanerako bideari; nahiz eta, egia esan, errespetu handirik ez zioten guardatu, formazkoa bederen.

Errespetu falta, gogaikarria izanik ere,

ez zait askorik inporta, formetara mugatzen den neurrian. Errespetua ez gaurdatzea oso kezkatzekoa da, ordea, demokraziaren oinarriak jaten dituen eta hori da azken bizpahiru urteotan gertatzen ari dena. Alderdi Popularrak diseinatutako estrategia auzoen iritziak gutxiestetik eta iragarri uztetik hasi zen, pentsamendu bakarraren ildoak jorratzen jarraitu zuen gero eta disidentzia suntsitzearekin bukatu nahi du. *Espainia bat, handi eta libre* leloa berrezarri nahi diote Espainiako armariari.

Horren aurrean euskaldunok zer? Zer estrategia daukagu? Bateratua ez, behintzat. Batzuk su artifizial hiltzaileen lilurak harrapaturik herriaren salbatzaileak direnaren ustean daude. Beste batzuk, ordagoa bota eta legea bete

behar izatearen lokatzetik ezin irten dabilta, ordagoa benetakoa denentz gutxi sinesten dutelarik. Batasuna beste guztiak beraien usteetara biltzea dela uste dute hainbatek. Lehengusu txikiak, txikiak dira besteengan eragin handirik izateko.

Eta anabasa horretan, Madrilgo martimulioa aitzina atsedetik gabe.

Batasunaren ilegalizazio saside-mokratikoa abertzaleon eta progresisten elkarlana bideratzeko katalizatzailea izan zitekeela uste nuen. Koitadua ni! Lehengo burutik orpoa! Etsita nagoela aitortu behar dizuet. Espainiako alderdiei inbidia diet. Diferentziak diferentzia, gauza inportateetan, *nazioaren batasun hautsiezinean* esaterako, bat datoz. Gurean aldiz... Urliak elkarretaratzea konbo-

katu duelako sendia ez doa nahiz eta gobernu berekoak izan! Oinaztar eta ganboatarren herria da gurea. Horrekin bizitzen jakin beharko dugu, etsigarria izanik ere. Orain arte, iraun izan dugu horrela. Zergatik ez dugu iraungo etorkizunean?

Batasunaren ilegalizazioa salatzen asmotan idazten hasi naiz lerro hauek. Ordenadorearen teklek beste norabait eramane etorkizun posiblearen zulo beltza ikusi dudanean. Hala ere, adostasunak adostasun eta desadostasunak desadostasun, abertzaleon eta progresisten elkarlanak soilik eman diezaiolke Batasunari aurrera egiteko modua. Larunbateko manifestazioa deitzeko modua ez da elkar hartze horren adibidea, jakina. Alabaina, bertara joateko gonbita egiten dizuet, *Gora Euskal Herria* leloak *Arriba España!* delakoaren oihartzuna ekartzen badit ere.

Errespetuba guardatu zuten beldur ziraden artean.